

# Asisko gutuna

2014ko iraila. 3. printzipioa. Eguneroko bizimodua: kanporantz, elkartasuna

71. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Gure espiritualtasuna eta gure bilaketa sarean bizi nahi dugu, horixe delako, izan ere, besteengana irekitzen gaituena. Jakin badakigu bakoitzak egin behar dugula bidea, bakoitzak bilatu, bakoitzak bizi Jainkoarekin harremana. Baina hain gaude indar beharrean, hain bultzatuak izan beharrean... Elkarri esker gara izan ere pertsona.

## Gogoetarako gaia

### *Nork bere burua zaintzea*

Gure garai honetan asko aipatzen da nork bere burua zaintzearen inportantzia. Zenbait kasutan beharrezkoak dira egiaz horrelako mezuak, ezin uka; adibidez besteak zaintzen dabilenak atsedena hartu behar du: “nork zainduko du zaintzailea?”, “atsedenik hartzen ez duena nekatu egiten da”, “ikasi, zaindua izaten uzten”. Baina itsu ez bagabiltza konturatzen gara, nork bere burua zaintzeko mezuen atzean maiz arrisku handia dugula, besterik gabe, geure zilborrari begira gelditzeko.

Horrela sarriro ikusten dugu, nork bere burua zaintzearen aitzakiatan zuritu egiten dugula geure jarrera egoista bizitzaren aurrean. Denak geure mesedetarako izan behar balu bezala jokatzeko dugu eta gure auto-zaintza, horrela, geure joraren, egiteen eta kezken eragile bihurtzen zaigu, eta lortu beharreko helburu. Ia konturatu gabe esperoan gelditzen gara, besteek gure nahietan zerbitza gaitzaten, “eskubidea baitugu horretarako”.

Erraz onartzen ditugun mezu bihurtzen zaizkigu, horrela, honako hauek: “Atsegin hartzeko, gozatzeko eta atsedenerako bizi, lanean edo pentsatzen ez lehertu”, “zaindu geure burua, bestela nork

zainduko gaitu?”. Baina horiek, benetan, hazi besterik ez dute egiten geure egozentrismoa.

Zera hartu behar dugu gogoan eta kontuan: besteekiko harremana dela, egiaz, zaintzen gaituena. Hazarazten gaituena, gu geu gehiago izatea ematen eta alderik onena ateratzen diguna eta geure izatearekin konektatzen gaituena ... hori dena emana datorkigu. Besteengandik datorkigu hori, maitatzen eta estimatzen gaituztenengandik, onera alda gaitzakeen besteen begiradatik.

Eta hor dago paradoxa: geure buruaren zaintza individualismoan bilatzen badugu, gutxiago gara pertsona, geure baitan ixten gara; baina geure burua ahaztu eta besteen ona bilatzen badugu, bateko ehun hartzen dugu.

Ez al da hori gertatzen ama eta aita izatean? Ez al da hori gertatzen senar-emazteen harremanean, gure hainbat harremanetan? Geure buruari adi jarriko bagintzaizkio, oihartzunean entzungo genituzke Jesusen zenbait esaldi, esker onez, konfiantzaz, geugandik ateratzeko eta maitatzeko gonbitez beteak...

## Ebanjelioko pasartea: Lk 12, 16-21

Gero parabola hau kontatu zien: «Gizon aberats bati lurrak uzta handia eman zion. Eta honela hasi zen berekiko pentsatzen: “Zer egin, ez baitut uzta non jasorik?” Eta beretzat esan zuen: “Badakit zer egin: mandio zaharrak bota eta handiagoak egingo ditut eta hauetan jasoko neure garia eta gainerakoak”. Gero, esango diot neure buruari: “Ea, mutil, baduk hor gordeta urteetarako ondasunik aski; hartu atsedena, jan, edan eta bizi hadi lasai”. Baina Jainkoak esan zion: “Burugabea halakoa! Gaur gauean bertan hil behar duzu. Norentzat izango da pilatu duzuna?”. Eta honela amaitu zuen: “Horra zer gertatzen zaion, Jainkoarentzat aberats izan beharrean, beretzat ondasunak pilatzen dituenari”».

## Frantziskotar espiritualtasuna

“Eta anaiak edonon daudelarik edo elkarrekin topo egiten dutelarik, trata bezate elkar etxeko bezala. Eta konfiantzaz ager biezazkio batak besteari bere premiak; izan ere, amak bere haragizko haurra hazten badu eta maitatzen, zenbatez maitekiroago ez ote du maite eta hazi beharko bakoitzak bere anaia espirituala?”

Frantziskoren ardura ez zen izan bere burua materialki zaintzea; ezta hori izatea ere beste anaien jorana. Bazekien auto-zaintzaren sekretua, hau da, zaintza hori besteen esku utzi behar dela. Lehenik berori konfiantzaz utzi, bedeinkatzen eta gordetzen gaituen Jaunaren esku zabaletan: “Jaunak bedeinka zaitzala eta gorde”.

Eta gero norbere zaintza, apaltasunez eta txeraz, anaien esku apaletan utzi. Horregatik eskatzen die anaiei, premian direnean jo dezatela elkarrengana etxekotasunez, haurra amarengana doan bezala. Eta ez ibili norbera bere burua zaintzen, edo bakoitza bere aldetik konpontzen, baizik eta anaien maitasunean hartu babesa. Era honetan askoz gehiago hartzen dugu, zeren eta senideen zaintza horretan Jaunaren zaintza, maitasuna eta bedeinkazioa hartzen baitugu.

## Otoitza

Har ezazu irribarre bat,  
eta eman iezaiozu oparitan  
sekula irribarrerik egin ez duenari.  
Har ezazu eguzki printza bat,  
eta bidal ezazu hegan  
gaua nagusi den tokira.  
Aurki ezazu iturri bat,  
eta garbiarazi bertan  
lokatzetan bizi dena.  
Har ezazu malko bat,  
eta jar iezaiozu aurpegian  
inoiz negar egin ez duenari.  
Har ezazu ausardia,  
eta jar ezazu

borrokatzen ez dakienaren bihotzean.  
Egizu bizitzaren aurkikuntza,  
eta konta iezaiozu  
bizitza zer den ez dakienari.  
Har ezazu itxaropena,  
eta bizi zaitez  
beraren argitan.  
Har ezazu ontasuna,  
eta emaitza  
ematen ez dakienari.  
Aurki ezazu maitasuna,  
eta emaitza  
ezagutzera munduari.

(Mahatma Gandhi)

## Gutuneko azken hitzak

“Zoriontasuna besteari zorionean aurkitzea da maitatzea.” (Leibniz)

2014ko iraileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate iraileko erreferentzia guztiak:

1 Lk 4, 16-30	7 Mt 18,15-20	13 Lk 6,43-49	19 Lk 8, 1-3	25 Lk 9, 7-9
2 Lk 4, 31-37	8 Mt 1,1-16.18-23	14 Jn 3, 13-17	20 Lk 8, 4-15	26 Lk 9, 18-22
3 Lk 4, 38-44	9 Lk 6, 12-19	15 Lk 7, 1-10	21 Mt 20, 1-16	27 Lk 9, 43b-45
4 Lk 5, 1-11	10 Lk 6,20-26	16 Lk 7, 11-17	22 Lk 8, 16-18	28 Mt 21,28-32
5 Lk 5, 33-39	11 Lk 6, 27-38	17 Lk 7, 31-35	23 Lk 8, 19-21	29 Jn 1, 47-51
6 Lk 6, 1-5	12 Lk 6, 39-42	18 Lk 7, 36-50	24 Lk 9,1-6	30 Lk 9, 51-56

Geure web gunea bisitatu

[www.asissarea.org](http://www.asissarea.org)



  
Asis Sarea

646 21 48 96

Iraileko otoitza 25an izango da